

# MARI URRAKA

**EUSKALERRIA'n, ugari daukaguz gaztelu eta torre ederrak eta antxiñako jauntxoan bizi-leku izan ziranak.**

**Batzutan izan diran jazopenen barria ba dakigu, baiña beste asko eskutu aundi batek inguratuta dagoz.**

**Muntzaraz'ko torrearen kondairako zeaztasun batzuk ezagunak jakuz, baiña etxe eder orrek**

**jazopen gaiago eskatzen ditualako edo, bere inguruan ipuiñak be sortu dira.**

**Gaur irakurleen aurrean jarten dogun ipuin onek, Anboto'ko Mari eta Naparroa'ko Santxo Erregea gogoratzen daukuz eta sarritan jazoten dan lez gizakien griñak ugari: Bekaitza, diruzalekeria, maitemiña, eriotzak...**

## ANBOTO'TIK GORBEA TA OIZ'ERA

Mari euskal-aide edo jenio guztien ama da, Amalur, eguzki ta illargiaren ama.

Kobatan bizi da eta bere kobarik beiñena Anboto'ko atxetan eukan. Emen egoten zan geien.

Zazpi urteTik zazpi urtera Gorbea'ra joaten tan eta emendik Oiz'ko mendira, zazpigarren urtean.

Andra oso ederra zan eta sekulako etxea eukan Anboto'ko atxean, Urrezko orma ta agcakaz egindako etxe ederra.

Urrezko orraziategaz bere ule ugari ta bellegiak orraztu ta orraztu ziarduan beti eta here kobatik, noizik beinka, urteten zan suzko bola baten irudipean eta orrela trumoi-odeien aurrelari jartzen zan, sekulako ekaitzak sortzen here aginduak beteten ez ebezanak zigortzeko.

Berak eukan lcgorte ta euritearen giltza, Guzurtiak gorroto ebazan eta inguruetakok neskak okerra artu eta bere kobara eroaten ebazan betiko katigu

## ABADEÑO'KO PERU TA IBON

Naparroa'ko Santxo'k esan eban hein Errien daukadan gizandi baltz au burrukan azpirate idauanari neure alabea emongo dautsat eikonkidetzat.

Ori entzun ebanean, Abadiano'ko 1Vfuntzaraz torreko seme gazte Peru joan zan ara eta; burruk, latz eta luze baten ondoren, baltz bildurgarri. ori garaitu eta beretzat artu eban erregearen alabaedcra:

Seme-alabak izan ebezan Muntzaraz'ko jauregian ezkonbañuok eta Ibon zan us ena, Mari Urraka txikiena.

Egon baten etxeko neskame batek eta Mari Urraka'k alkar artu eta etxeko oiñordeko Ibon, gazte galanta, iltea erabagi eben, aren nagusitasuna eurakanduteko.

## TXANGOAN ILTZALLEAK

Anboto aldera txangoa eskiñi eutsoen Urraka'k' eta bere neskarriak: Ibon'eri.

Muntzaraz'tik urten eta Atxaite'ra eldu ziran eta andik, aldatzak goña ta gora, Larrano gaiñera be bai, jolasti ta berbatsu. An jesarri ziran eta bazkari ederra iruntzi eben. Eta jan hita tean, ardaoa emoten eutsan sarritan here nebeari alik, mgzkoñren eginda itzi arte Urraka'k,

Mozkor-mozkor egin zanean, Mari Urtaka'k sakatu egin eutsan eta atxetik bera jausi zan Ibon gizajoa.

## ETXEAN IBON'EN ARDURAZ

Etxera eldu ziranean, Muntzaraz'ko jaunak itaundu eutsen:

—Non dau kazue Ibon nire seme kutun eta galanta?

—Atxetik jausi da laprast eginda eta Axpe'ko trokan gelditu da-erantzun eutson: Mari Urraka'k.

—Lar edan dau bai, eta, ustebarik laban eginda, aurreko trokat'a amildu jaku-esarcban neskameak.

## URRAKA LARRI

Kanpotik nasai agertu arren, estu ta larri egoan Mari Urraka here barruan.

Bere kontzientziak ez eutsan baketan izten: gaua etorri ta ezin loak artu, ogera joan bearrean subetea, eskaratzean, gelditu, barruko burruka gogorra ezin baratu.

## URRAKA ANBOTO'N

Onctan, berak gitxien uste ebanean, Anboto'ko Mari jatsi jakon etxearen ke-zulotik eta Mari Urraka gaizto ta oker ori aidean artu eta here koba-zulora eroan eban.

Antxe dago, Anboto'ko leiza-zuloan Abadeño'ko Urraka, ango sorgiñen mirabe sekula santara arte.